Goierriko

# HITZA

**Ostirala**
2018ko urtarrilaren 12a

**Argitaratzailea:** Goierriko Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-1052-04
**Zuzendaria:** Iñaki Gurrutxaga
**Egoitzak: Beasain.** Oriamendi, 32. 943 16 00 56. Faxa: 943 88 96 12
**Urretxu.** Iparragirre, 11. 943 72 34 08
**Editoreak:** Arkaitz Apalategi eta Tere Madinabeitia
**Kudeatzailea:** Josu Iñigo
**Publizitatea:** jizagirre@hitza.eus. 607 530 424.
**Beasain:** 607 554 094. beasain@hitza.eus. **Herri txikiagoak:** 647 319 750. lazkao@hitza.eus. 647 319 749. aiturbe@hitza.eus. **Ordizia:** 647 319 749. ordizia @hitza.eus. **Legazpi-Urretxu:** 674 034 342. legazpi @hitza.eus. urretxu@hitza.eus. **Zumarraga:** 647 319 753. zumarraga@hitza.eus.

**Goierriko Hedabideak S.L.ko kideak:** Goierritarrak Kultur Elkartea, BERTAKO HEDABIDEAK **eta Goierriko beste 15 eragile**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza,Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Legazpi, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zumarraga

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
**902 82 02 01**

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura |
|---|---|---|
| | | 9° / 3° |

**Bihar**

| | |
|---|---|
| **Goiza** | Euria |
| **Arratsaldea** | Euria |
| **Beroena** | 6° |
| **Hotzena** | 3° |

goierri.hitza.eus

# Agenda

## Kultura

### Zinea

**ATAUN.** Herri antzokia.
*'Bajo el sol'*
**Ostirala** 22:00
**Igandea** 19:30
**Astelehena** 21:00
*'Capitan calzoncillo'*. Haurrak.
**Igandea** 16:30

**BEASAIN.** Usurbe antzokia.
*'El Gran Showman'*
**Ostirala** 22:00
**Larunbata** 19:30 22:30
**Igandea** 19:30 22:00
**Astelehena** 19:30 22:00
*'Se armo el Belen'*. Haurrentzat
**Larunbata** 17:00
**Igandea** 17:00

**LAZKAO.** Areria aretoa.
*'Perfectos desconocidos'*
**Larunbata** 19:30 22:15
**Igandea** 19:30
**Astelehena** 21:30
*'Paddigtong 2'*. Haurrentzat.
**Larunbata** 17:00
**Igandea** 16:30

**LEGAZPI.** Latxartegi.
*'Ana mon amour'*. Zine-kluba
**Ostirala** 22:15
*'La gran enfermedad del amor'*
**Igandea** 19:30
*'Deep'*. Haurrentzat.
**Igandea** 17:00

**ORDIZIA.** Herri Antzokia.
*'Perfectos desconocidos'*
**Ostirala** 22:15
**Larunbata** 19:30 22:15
**Igandea** 19:30 22:15
**Astelehena** 19:30
*'Coco'*. Haurrentzat.
**Igandea** 16:45

**ZUMARRAGA.** Zelai Arizti.
*'Perfectos desconocidos'*
**Larunbata** 19:30 22:30
**Igandea** 19:30 22:00
**Astelehena** 19:30 22:00
*'Paddigtong 2'*. Haurrentzat.
**Larunb. (eusk.)** 17:00
**Igandea** 17:00

### Antzerkia

**Zumarraga.** Gaur, 22:30ean, *Descanse en paz, ¡Pero que lo haga ya!*, Zelai Ariztin.

### Azoka

**Beasain.** Bihar, Bertako produktuen azoka, Loinazko San Martin plazapena (10:00-14:00).

### Erakusketa

**Beasain.** Gaur, 19:00etan, Lemniskataren Matematika Argazki Lehiaketaren sari ematea eta erakusketa irekiera, Igartzan.
**Ordizia.** Gaur, 19:00etan, Pedro Gaztañagaren *Senses: Adam & Eve* erakusketaren inaugurazioa, Barrena kultur etxean.

### Dantza

**Legazpi.** Larunbatean, 16:30ean, Haurren Aurresku eta Neskatxena Txapelketetako ligaxkako saioa, Latxartegi aretoan.

### Hitzaldia

**Beasain.** Gaur, 19:00etan, *Eguneroko bizitzako ezusteko matematikoak* (gazteleraz), Igartzan. Hizlaria: Fernando Corbalan.
**Urretxu.** Larunbatean, 11:00etan, *Harriek esana, baina ikusi gabea* hitzaldia, Aizpurunea kultur etxean. Hizlaria: Koldo Argandoña.

### Ipuin kontaketa

**Lazkao.** Gaur, 17:00etan, Maite Franko kontalaria, liburutegian.

## Agurrak

### Oihan (2 urte)



**Zorionak pottoko!** Muxu handi bat denon partetik.

## Farmaziak

### Gaur

**Beasain.** Egunez: De la Cuesta. Zelaeta kalea, 1. 943 88 05 87.
**Beasain.** Gauez: Urbizu. Kalea Nagusia, 8. 943 88 02 32.
**Zumarraga.** Egunez: Berbel. Legazki kalea, 12. 943 72 12 07.
**Zumarraga.** Gauez: Roldan. Euskadi plaza, 4. 943 72 11 64.

*HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.*

**Publierreportajea**

# Autogestioan oinarrituta, Sutearon bazkideek babesten dituzte euren etxebizitzak

**Sutearo**

Landa eremuetako etxebizitzak babestea. Horretan datza Sutearoren lanaren garrantzia. Duela 26 urte Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herritarrek hasitako lanari heldu, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dira sutearoak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 39 sutearo edo ermandade dira gaur egun.

Elkarte bezala funtzionatzen dute, kooperatiba baten filosofia da Sutearorena. Hala, bazkide denen artean babesten dituzte etxebizitzak. Autogestioan oinarritzen dira horretarako, eta denen artean babesten dituzte etxebizitzak, denen parte hartzearekin. Hori, eta irabazi asmorik ez izatea da aseguru etxeengandik bereizten diena.

Zornotzan dute bulegoa, eta hango langileek bazkideen beharrak kudeatzen dituzte. Hori da euren lana, sutearoetan, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiak kudeatzea. «Normalean, denek ditugu arau berdinak baina bazkideek erabakitzen dute arau horiek zeintzuk diren. Sutearok ermandadeen aginduak betetzen ditu, aurrera eraman», diote.

Beraz, lehenago ere bazegoen errealitate bati forma juridikoa emateko sortu zen Sutearoko Federazioa, etorkizuna bermatzeko. Bazkideak jartzen duen diruarekin guztion artean, era solidarioan, ordaintzen dituzte kalteak. «Bazkideak jartzen duen dirua konponketak, siniestroak eta abarrak ordaintzeko erabiltzen da. Eta baja ematerakoan bazkide horrek Sutearoren poltsan dirurik balu, bueltan hartuko luke. Bazkide denek aportatzen dute Sutearon proportzio berdina, bakoitzak bere etxearen balioaren arabera».

### Tokian tokiko erabakiak

Baserrien jabeak dira, batez ere, Sutearora jotzen dutenak, aseguru etxeentzat ez baitira erakargarriak. Eraikuntza handiak dira, eta etxebizitzek baino arrisku gehiago dituzte. Horregatik, baserrien jabeek aseguru etxeetan ordaindu behar duten kuota oso garestia izaten da. Sutearok, aldiz, ez ditu baserriak baztertzen, bere baitan hartzen ditu; «gure ardura delako baserri inguruko etxebizitzak babestea».

Horregatik, Sutearora hurbiltzen direnei beren filosofiarekin bat egitea eskatzen diete, ez prezioagatik. «Autogestioan, lankidetzan lan egiten dugu, eta batzarretara joateko eskatzen dugu, erabakiak denen artean hartzen ditugulako. Elkarte transbertsala da, eta gure proiektua denen artean egindakoa da», azpimarratu dute.

Ermandade bakoitzean batzar bat egiten dute urtean, inguruko bazkide denak biltzen dituena. Urteko balantzea egin, kontuak aurkeztu eta eztabaidatu beharrekoak lantzen dituzte, sutearo bakoitzean tokiko gai ordenari jarraituz. Horrez gain, ermandadearen batzordea aldatzeko baliatzen dute batzarra, eta hurrengo urtean ermandadeko ordezkari zeintzuk izango diren jakitera emateko.

Autonomoak direlako du sutearo bakoitzak tokian tokiko batzordea. Hurbila delako. Eta bazkideek duten beste abantaila bat da norberak erabakitzen duela etxean egin beharreko konponketa nork egingo duen. «Sutearok peritoa bidaltzen du, baina gremioa bazkideek berak bilatzen du, ingurukoen artean sinergiak lortzeko, eta, *kilometro cero* deritzan horretan oinarrituta, tokiko jendeari ere lana emateko».

